

Otsailaren 10ean
URTEAN ZEHARREKO 5. IGANDEA

Gosearen aurkako Jardunaldia

**“Emakumea XX. mendean:
ez independentea, ez segurua, ahotsik gabea”**

Agurra

Berari jarraitzera deitu gaituen Jesu Kristoren Espiritu santutzailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea agerian jartzen dugu Bataiatuok igandean. Asteazkenean zehar bakoitzak bizi duena, Eukaristian elkarrekin partekatuz eta Kristoren Piztuera ospatuz.

Gaur Manos Unidas erakundearen eskutik Gosearen aurkako Jardunaldia dugu. Orain hirurogei urte emakume talde batek hasi zuen ekimen hau, giza duintasunaren alde lan eginez eta denon oinarrizko eskubideen alde saiatuz. Asmo horri jarraitzen dio gaur ere erakunde honek eta aintzakotzat hartuko dugu gure otoitzean eta diru-bilketa berezian.

Damu-otoitza

Presta gaitezen bekatarari gurela aitortuz:

- Jesus Jauna, bekatarien artean Santua zarena: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, Aita agertzen digun Jainkoaren Semea: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, jarraitzaile egiten gaituen Maisua: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Zure betiko maitasunaz zaindu, Jauna, zeure familia;
eta, zure grazia bait dugu gure itxaropen bakarra,
zaindu gaitzazu beti zure babesean.**

**Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Entzutera goazen Hitza indarrez eta misterioz betea dago. Isaiasek Jainkoaren esperientzia kontatzen digu, berak bizi izan zuen bezala. Deitua sentitzen da, baina deiak gainditua. Dei horrexek bete zituen apostoluak, eta dei hori jasotzen dugu guk ere gaur.

Lehenengo irakurgaia (Is 6, 1-2a. 3-8)

Isaias profetaren liburutik

Ozias erregea hil zen urtean, Jauna ikusi nuen, errege aulki garai eta goiengan eserita; eta Haren jantzi barrenak jauretzea betetzen zuen. Haren gainean serafinak zeuden zutik, bakoitzak sei hegala zituela. Oihu handiz, honela zioten elkarri: «Santu, santu, santua Jauna, diren guztien Jainkoa; lur osoa Haren aintzaz beterik dago!»

Oihu harekin ateen dardar egin zuten beren orpoetan, eta jauretzea kez bete zen. Eta nik esan nuen: «Ai ene, galdua naiz! Ezpain zikineko gizona izanik eta ezpain zikineko herriaren erdian nagoena, nire begiek Erregea, diren guztien Jauna, ikusi dute».

Baina serafinetako bat etorri zitzaidan hegan, ikatz biztua eskutan zuela, aldaretik suatzez hartua, eta herekin ahoa ukitu zidan, esanez: «Hara, honek ukitu ditu zure ezpainak; eta horra kendua zure errua, eta barkaturik zure bekatua».

Eta Jaunaren mintzoa entzun nuen esaten: «Nor bidaliko dut? Nor jaongo da gure izenean?» Eta nik erantzun: «Hona hemen ni, bidal nazazu».

Erantzun-salmoa (Sal 137, 1-2a. 2bcd-3. 4-5. 7c.8)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di-
 a be - re be - ti - ko e - rru - ki - a.

Jauna, bihotz-bihotzez dizkizut eskerrak emango,
 nire hitzak entzun dituzulako.

Eresi egingo dizut aingeruen aurean,
 ahuspeztuko naiz zure jauretxe santuan. R/.

Eskerrak emango dizkiot zure izenari ‘
 ona eta leiala zarelako,
 zure hitzak baitu zure izena egin handigo.
 Hots egin nizunean, entzun ninduzun,
 eta nire bihotzean kemena indartu duzu. R/.

Eskerrak eman biezazkizute, Jauna, lurreko erregeek,
 zure ahoko hitzak entzutean.

Ospa bitzate Jaunaren bideak:

«Handia da Jaunaren dirdaia benetan.» R/.

Zure eskuinak nau salbatzen,
 bukatu du Jaunak nire alde hasia;
 betiko dago, Jauna, zure maitasuna,
 ez eskutik utzi zeure eskuz egin duzuna. R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 1-11) – *utz daiteke [] kako artekoa*

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: [Oroitarazten dizuet, neuk erakutsi nizuen Ebanjelioa, eta zuek hartu zenutena; horretan sendoki oinarrituak zaudete zuek eta horrek salbatzen zaituzte, nik erakutsi bezala eusten badiozue; bestela, alferrik sinetsiko zenuten.]

Hau zen, nik hartu bezala neuk zuei lehendabizitik emandakoa; Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuak esan bezala, hobiratu izan zela eta hirugarren egunean biztu zela, Liburu Santuak esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta gero Hamabiei. Gero, bostehun eta gehiago senideei batera agertu zitzaion —haietatik gehienak bizi dira oraindik, eta besteak hil ziren—. Gero Santiagori agertu zitzaion, gero apostolu guztiei; azkenik, zazpiki bati bezala, agertu zitzaidan neuri ere.

[Apostoluetan txikiena bait naiz ni, apostolu izenik ere merezi ez dudana Jaungoikoaren Elizaren aurka ibilia naiz eta. Baina, Jaungoikoaren graziaz naiz naizen hau, eta Haren grazia ez da alferrikakoa izan niregan; haiek guztiek baino lan gehiago egin bait dut; ez, ordea, nik; Jaungoikoaren graziak, baizik, nirekin.]

Horrela, bada, bai haiek eta bai nik, hau hots egiten dugu; eta zuek hori sinesten duzue.

Aleluia (*Mt 4, 19*)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

Zatozte Nirekin —dio Jaunak—,
eta giza arrantzale egingo zaituztet. R/.

Ebanjelioa (*Lk 5, 1-11*)**Homiliarako argibideak**

Lehenengo irakurgaiak Isaias profetaren bokazioaren pasartea aurkezten digu. Isaiasek Tenpluan izandako irudipen batean, Jainkoaren aintza ikusten du, eta aingeruak jainkozko santutasuna aldarrikatzen. Isaias profetaren erantzuna, lehen une batean, bere duintasunik eza aitortzea izan da. Baina Jainkoak, aingeru baten bitartez bere ezpainak ukitu ditu. Profetak azkar erantzuten dio eskariari: "Prest nauzu, bidali neu". Jainkoak misio bat ematen dio profetari herriaren salbaziorako: bere bekatuarekin aurrez aurre jarriko du, bihotza gogortuz. Suntsitutako herritik hazi santua sortuko da, eta ituneko herri berriak fruitua emango du.

Jesusek Pedrori egiten dion deiak Isaias profetaren pasartean ikusi dugun eskema bertsua du. Jesusek ontzira igo eta jendetzari zuzentzen dizkion hitzak entzuten ditu Pedrok, eta begirune handiz entzun ere ebanjelioak esaten digunez (Lk 4, 22.36). Hitz hauek itsas zabalera gehiago barneratu eta arrantza egitera bultzatzen du Pedro, horretarako oso une egokia ez izan arren. Eginiko arrantza, ordea, itzela izan da eta Pedrok ahuspezturik bere bekatua aitortzen

du. Jesusek jarraitzeko dei egin dio, misio berri bat emango diolako: gizon-emakumeak bilatu eta Kristorengana bideratzea.

Eskuak elkaturik: Gosearen aurkako kanpaina

Gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna da kristau mezuaren edukietariko bat. Eliza gizonaren eta emakumearen Sorreraren misterioaren lekuko da. Batak bestea menderatzea zilegi ez denez, ezinbestekoa da osagarritasuna gizakiaren misterioa argitzeko. Guk prest egon behar dugu gizonaren eta emakumearen sorreraren ebanjelioa zabaltzeko, honen lekukotasuna emateko eta maitasunaren zibilizazioan behar den lankidetzaren sustatzeko. Manos Unidas erakundeak oroitarazten digu, hain zuzen, emakumea gizona baino pobreagoa dela oraindik, parekotasuna urruti dagoelako. Justizian bakarrik -hori baita bakoitzaren bere-berea dena aitortzeko gai den bertutea-, aurkitu ahal izango dugu jatorrizko berdintasunaren funtsa eta oinarria: guztiok izan gara Jainkoak sortuak eta bizitza santuan berari jarraitzera deituak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitz senideok Aitari, betiereko Jainkoaren Semeari eta on guztiaren iturria den Espirituari:

- Munduan zabaldurik dagoen egiazko Jainkoaren elizarentzat, eska dezagun Jainko-maitasun egiazkoa. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako agintarientzat eta gizakien bizimodua euren eskuetan dutenentzat eska dezagun zuzentasun espiritua eta herritarrak zerbitzatzeko lehia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Goseak diren guztientzat eska dezagun maitatu eta lagunduko dion kristau elkartearen aurkitzea. Eska diezaiogun Jaunari.

—Geuretzat eska diezaiogun Jaunari seme-alabatzako begirunea, maitasun leiala eta bizitza zoriontsua. Eska diezaiogun Jaunari.

Ona zaren Jainkoa, gure ahultasunean konfiantza izanik Berri Ona zabatzeko misioa eman diguzu; entzun Zure familia honen otoitzak eta egizu Zure Espirituaren indarrez saia gaitzela Zure Hitz salbagarria bihotz zabalez gizon-emakume guztiei entzunarazten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Diru-bilketa egitean

Egitera goazen diru-bilketa, “Manos Unidas” erakundearen proiektuekin bat egiteko izango da. Pobreziaren aurkako ahalegin honetan saia gaitzen guztiok eskuzabal izanez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko Jauna,
ogi eta kaliza beretik hartzea eman diguzu;
egizu, Kristorengan bat eginik bizi gaitzela
eta fruitu ugari ekar dezagula
munduaren salbamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**